

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2021/2022 ikasturtea**

**LEHEN HEZKUNTZAKO ADIMEN GAITASUN HANDIKO  
IKASLEEN GARAPEN INTEGRALA BULTZATZEKO  
HEZKUNTZA ESTRATEGIA INKLUSIBOAK: KASU  
AZTERKETA**

**ERANSKINAK**

**Egilea: Ane Bizkarra Etxegibel**

**Zuzendaria: Igone Aróstegui Barandica**

**Leioan, 2022ko ekainaren 1ean**

## AURKIBIDEA

1. Eranskina: elkarrizketa eta talde fokalerako gidoia.....	2
2. Eranskina: elkarrizketarako eta talde fokalerako baimena.....	5
3. Eranskina: elkarrizketak eta talde fokala .....	6
3.1. Irakasleria eta zentroko aholkularia .....	6
3.2. Familia .....	11
3.3. Ikaslea .....	17

### **1. Eranskina: elkarrizketa eta talde fokalerako gidoia.**

Elkarrizketetarako eta talde fokalerako prestatu diren galderak: irakasle eta zentroko aholkulariari eginikoa, familiari eginikoa eta ikasleari eginikoa.

#### **Irakasleria eta zentroko aholkularia**

Detekzioa

1. Nola jakin zenuten Adimen Gaitasun Handiak zituela?
2. Noiz ohartu zineten?
3. Zein prozedura jarraitu zenuten? (norekin jarri ziren harremanetan, protokoloa, Berritzegune, familia...)
4. Zelan antolatu zen erantzuna prozesuan?

Ikaskuntza prozesua

1. Nolakoa izan da bere ikaskuntza prozesua Lehen Hezkuntzan zehar?
2. Zer nolako zailtasunak izan ditu?
3. Zeintzuk izan dira bere indarguneak?

Laguntza eskaintza

1. Zein arlotan gailentzen zen?
2. Zer nolako prozesua izan zen?
3. Zer nolako esku-hartzea egin zenuten? Orain jada denbora bat igarota egokia izan da?
4. Momentu honetan zer nolako hezkuntza jasotzen du?

Eskola testuingurua

1. Oro har zentroan inklusioa bideratzen da? Irakasleek inklusioa bultzatzen laguntzen dute?
2. Zer nolakoa da irakasleen arteko harremana? Lankidetzan jarduten dute?
3. Zer nolakoa da irakasle eta ikasleen arteko harremana? Eta irakasle eta familien artekoa? Zein paper hartzen du familiak?
4. Irakasleek formakuntzak jasotzen dituzte aniztasunari erantzuna emateko?
5. Zer nolako jarduerak egiten dira inklusioa bultzatzeko? Zer nolako baliabideak erabiltzen dira zentroan? Hezkuntza laguntza zer nolakoa da? (zentroan aurrera eramaten den metodologia...)
6. Taldekatzeak egiteko unean, talde heterogeneoak kontuan hartzen dira?
7. Aurretik aipaturiko guzti honek, ikaslearen (X ikaslea) kasuan lagundu du?

### Koordinazioa eta komunikazioa

1. Nolakoa izan da zuen arteko koordinazioa? (irakasleen artekoa, eskolako aholkulariarekin, Berritzeguneko aholkulariarekin)
2. Nolakoa izan da familiarekin harremana?

### Prestakuntzak

1. Zeintzuk izan dira zuen eskolako ahulguneak eta indarguneak?
2. Zerbait egingo zenukete beste era batera?
3. Zer uste duzue hobetu daitekeela?
4. Zer izan da gehien lagundu zuena arrakasta bideratzeko?
5. Irakasle berri bati zer gomendio emango zenioke?

Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?

### **Familia**

#### Detekzioa

1. Nola jakin zenuten Adimen Gaitasun Handiak zituela?
2. Noiz ohartu zineten?
3. Nola hartu zenuten egoera hori? Momenturen batean beldurra izan zenuten?

#### Ikaskuntza prozesua

1. Nolakoa izan da bere ikaskuntza prozesua Lehen Hezkuntzan zehar?
2. Momentu honetan zer nolako hezkuntza jasotzen du?
3. Zein elementu izan dira gakoak zure seme/alabaren eskolaratze prozesuan? (irakaslea, elkarteren baten laguntza...)

#### Eskola testuingurua

1. Eskolatik zer izan da gehien lagundu duena?
2. Eskolako testuinguruak/metodologiak zertan lagundu du?

### Koordinazioa eta komunikazioa

1. Hezkuntza-sistematik zailtasunak izan dituzue? Oztopoak jarri dizkizute?
2. Hezkuntza-sistemak nolako erantzuna eskaini zion?
3. Ikasturte bat aurreratzearena nola ikusten zenuten? Ez zenuten beldurra izan, lagun berriak egiterako orduan nola moldatuko zen jakiteko?

### Antzeko egoerarik

1. Familiako beste kideren bat egoera berdinean dago? Hau da, Adimen Gaitasun Handiak ditu?
2. Nolako izan da beraien kasua?

Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?

### **Ikaslea**

#### Detekzioa

1. Nola jakin zenuen Adimen Gaitasun Handiak zenituela?
2. Noiz ohartu zinen?

#### Ikaskuntza prozesua

1. Nola deskribatuko zenuke egun bat eskolan?
2. Zer da gehien kostatzen zaizuna?
3. Zer da zure gustukoena? (ikasgaien inguruan, ikasteko moduak/taldeetan...)
4. Zer izan da urte hauetan eskolan ikasteko eta pozik sentitzeko gehien lagundu zaituena? (irakasle batek, klaseko kideak...)
5. Eskolan aspertzen zinen? Irakasleak lan gehiago ematen zizun egiteko? Orain aspertzen zara?
6. Irakasleen partetik laguntza berezia jaso duzu?

#### Arlo soziala

1. Zer nolako harremanak dituzu ikaskideekin? Gustura zaude zure eskolan? Zer hobetuko zenuke? Zer edo nor izan zen gehien lagundu zizuna?
2. Erraza egin zaizu lagun berriak egitea? Laguntza jaso duzu?

Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?

**2. Eranskina: elkarrizketarako eta talde fokalerako baimena.****ELKARRIZKETARAKO BAIMENA**

Ane Bizkarra naiz, Bilboko Hezkuntza Fakultateko (EHU) Lehen Hezkuntza Graduoko laugarren mailako ikaslea. Momentu honetan, Gradu Amaierako Lana (GrAL) Adimen Gaitasun Handien haurren inguruan egiten ari naiz. Elkarrizketa hauengatik lortzen dudana informazioa bertan txertatzeko erabiliko da.

Kasu honetan, X ikaslearen egoera kontuan hartuko da elkarrizketa bideratzeko unean, hain zuzen ere, honen identifikazio-prozesua zer nolakoa izan zen eta momentu honetan bizi duen egoera aztertu nahi da; horretarako baliagarria izan daiteke irakasle ezberdinek, tutoreak eta zentroko aholkulariak zein familiak ere, eman dezaketen informazioa, ikerketa bideratzeko. Hori dela eta, elkarrizketa grabatu egingo da. Hala ere, parte hartzea borondatezkoa da eta zure erantzunak anonimoak izango dira.

Baimena ematen baduzu mesedez bete datu hauek:

Informazioa irakurri dut eta ikertzaileak helburua azaldu dit; beraz, modu anonimoan eta konfidentzian parte-hartzearekin ados nagoela adierazten dut.

Ados nago elkarrizketa grabatzearekin: BAI  EZ

Elkarrizketatuaren sinadura:

Data:

---

Elkarrizketatuaren izen-abizenak:

---

Ikertzailearen izen-abizenak:

---

Aldez aurretik eskerrak elkarrizketa egiteko hartutako denboragatik,

Ane Bizkarra

### **3. Eranskina: elkarrizketak eta talde fokala**

#### **3.1. Irakasleria eta zentroko aholkularia**

##### **Detekzioa**

##### **1. Nola jakin zenuten Adimen Gaitasun Handiak zituela?**

Haur Hezkuntzan gailentzen hasi zen. Oro har, irakurtzen oso goiz hasi zen. Betidanik oso ikasle ona izan da. Berritzeguneak eskaera egin zion eta beraiek egin zuten balorazioa. Hau da, diagnostikoa Berritzeguneak egin zuen.

##### **2. Noiz ohartu zineten?**

Edukiak barneratzeko betidanik erraztasun handia izan du; arlo askotan gailendu egiten zen: matematiketan, adierazpenean... Irakurketarekin lau urteko gelan hasi zen, hau da, 4 urterekin jada irakurtzen bazekien. Gainera, txikia zenetik interes handia erakutsi du guztiaren aurrean.

##### **3. Zein prozedura jarraitu zenuten? (norekin jarri ziren harremanetan, protokoloa, berritzegune, familia...)**

Aurretik aipatu bezala, Berritzegunekoak izan ziren diagnostikoa egin zutenak, beraz, beraiekin harremana izan dugu hau aurrera eramateko. Bestetik, familia ere momentu oro egon da egoeraren gainean. Gurasoak Adimen Gaitasun Handiak zituela sumatu zuten, eta berehala kurtsoz igarotzea nahi zuten. Hau da, promozioa egitea. Beraz, lehenengo momentutik familiarekin harremana mantendu dugu eta promozioa aurrera eramateko alderdi guztiak elkarrekin adostu dugu.

##### **4. Zelan antolatu zen erantzuna prozesuan?**

Lehen esan bezala, jada Haur Hezkuntzan Adimen Gaitasun Handia nabaritzen zen. Hori ikusita, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan, ikaslea oso urduri zegoela ikusten zen. Beraz, 1.mailan aberaste curricularra egitea erabaki genuen. Hau da, bere adinerako ohiko jarduerak egiten zituen, baina hauek bukatzerakoan lan gehigarria egiten zuen. Horrekin bat, mate eta euskara ikasgaietan aparteko lana ematen genion. Momentu horretan, gurasoek gehiago nahi zuten, hau da, kurtsoz igarotzea nahi zuten; baina promozioa egin baino lehen, guk astiro joan nahi genuen. Lehen aldia zen, promozioa egin ahal izan genuela, eta alde batetik beldurra genuen hanka sartzeko eta gauzak ondo ez ateratzeko. Hori ikusita, ikaslea 2.mailan zegoenean, Norbanako Curriculum Egokitzapena (NCE) egin genion. Horrez gain, ikasgai batzuk egitera 3.mailara joaten zen. Hain zuzen ere, promozioa egitea nahi genuenez, 3.mailako ikasleekin nola eramaten zen ikusi nahi genuen; ea gainerakoekin harremantzeko arazorik zuen, gainerakoek errespetatzen zuten,

etab. Hori kontuan hartuta eta NCEko helburuak gainditu zituenez, promozioa egitea erabaki genuen. Beraz, 2.maila bukatu zuenean, 3.mailara joan beharrean, 4.mailara igo zen.

## **Ikaskuntza prozesua**

### **1. Nolako izan da bere ikaskuntza prozesua Lehen Hezkuntzan zehar?**

Gure ustez hiru arlo dira garrantzitsuenak horrelako egoera bati aurre egiteko: akademikoa, emozionala eta soziala. Ikaslearen kasuan, akademikoki ez du inoiz arazorik izan, lehenengo momentutik ondo moldatu baita. Arlo emozionalari dagokionez, hasiera batean oso urduria eta egonezina zen.

Azkenik, arlo sozialari dagokionez, esan beharra dago, hasiera batean bere adineko jendearekin harremanetan egoten zela. Hain zuzen ere, nahiz eta kurtso bat igo, patio orduetan bere aurreko taldearekin egoten zen. Ondoren, Covid-19aren ondorioz, patio orduetan, ikasgela bakoitzak bere burbuila soziala zuela kontuan hartuta, ezin zen kurtso bat beheragoko ikasleekin harremanetan egon; azken finean, bere lehenengo mailako kideak faltan botatzen zituen. Hasiera batean, bere ikasgela berriko ikasleekin harremanak izatea kostatu egiten zitzaion, baina orain jada oso ondo moldatzen da guztiarekin, inolako arazorik gabe.

### **2. Zer nolako zailtasunak izan ditu?**

Lehen aipatu bezala, hiru arlo nagusi daude: akademikoa, emozionala eta soziala. Akademikoki ez du inolako arazorik izan; erraz bideratu zen jarduera berriak eta konplexuagoak egiterako orduan. Bere buruarekiko exijentzia maila oso altua dauka. Arlo soziala eta emozionala hasiera batean zailagoak izan dira, baina ondo ibili da; arazo larririk gabe.

Bestetik, gure kasuan zailtasun gehiago izan ditugu. Lehen aldia izan da promozioa egiten gurela eta hasieran gehienbat pixka bat baldintza ibili ginen. Ez genekien egiten ari ginena ondo irtengo zen edo ez; gure zalantzak genituen. Baina prozesua ondo irten da eta lortutakoarekin pozik gaude. Oztopo bat komentatzeko, 2.mailako eta 3.mailako ordutegiek bat egin behar zutela izan zen; hain zuzen ere, ikasleak gelaz aldatzerako orduan, 3.mailan ere materia berdina landu behar baitzuten.

### **3. Zeintzuk izan dira bere indarguneak?**

Oro har arlo gehienetan gailendu da. Baina gehienbat matematika eta adierazpena dira bere indarguneak. Hau da, alderdi ezberdinak azaltzerako unean abilezia handia dauka.



## **Laguntza eskaintza**

### **1. Zein arlotan gailentzen zen?**

Lehen aipatu bezala, matematiketan eta adierazpenean gailentzen zen.

### **2. Zer nolako prozesua izan zen?**

Prozesua nahiko konplikatua izan zen; hain zuzen ere, Berritzeguneko laguntza kenduta, ez dugu inolako beste laguntzarik jaso, eta hau oztopo bezala ikusi dugu. Hain zuzen ere, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen zerrendan sartzen da, baina Adimen Gaitasun Handiak izateagatik ez dute inolako laguntzarik ezta aparteko baliabiderik eskaintzen. Hau da, beste arazo bat duen ikasle bat izatekotan, kasu horretan terapeuta pedagogikoa ikasgela barruan sartu daiteke eta ikasle hau lagundu. Baina gure kasuan, tutorea zen ikasleari laguntza hori eskaini behar ziona; beste batzuetan aholkulariak egin behar du lan hori; baina ez dugu inolako laguntzarik jaso horri aurre egiteko.

### **3. Zer nolako esku-hartzea egin zenuten? Orain jada denbora bat igarota egokia izan da?**

Lehen aipatu bezala, lehendabizi Lehen Hezkuntzako 1.mailan zegoenean aberaste curricularra egin genion, hau da, lan gehigarria ematen genion burutzeko. Ondoren, 2.mailan zegoenean, ikasgai batzuk egitera 3.mailara joaten zen. Hots, NCE egin genion; eta bertako helburuak gainditu ostean, promozioa egin genuen, hau da, kurtsoz igo genuen, Berritzegunearen laguntzarekin batera. Momentu honetan jada ikaslea oso ondo eta gustura dago.

### **4. Momentu honetan zer nolako hezkuntza jasotzen du?**

Kasu honetan, 6.mailan dagoela kontuan hartuta, 6.mailako edukiak lantzen ditu, aparteko lanik edota esku-hartzerik egin gabe. Esan beharra dago, guztiarekiko interes handia erakusten duela eta emaitza onak ateratzen dituela, baina 6.mailan ondo dago. Hau da, berak erakusten duen maila ez da beste kurtso bat igotzeko bezalakoa.

## **Eskola testuingurua**

### **1. Oro har zentroan inklusioa bideratzen da? Irakasleek inklusioa bultzatzen laguntzen dute?**

Bai, eskolan egiten diren ikas komunitateko jarduera arrakastatsuak (tertuliak, talde elkarreragileak...) inklusioan oinarritzen dira.

**2. Zer nolakoa da irakasleen arteko harremana? Lankidetzan jarduten dute?**

Ikasle batetik esku-hartze zuzena dugun irakasle guztiok inplikazio handia daukagu beraien beharrei erantzun egoki bat emateko. Kolaborazio-koordinazio estuan jarduten dugu lanean. Horretaz aparte, eskolaz kanpoko profesional desberdinekin ere komunikatzen gara, ikaslearen ikasketa-prozesuan agertzen diren oztopoei aurre egiteko.

**3. Zer nolakoa da irakasle eta ikasleen arteko harremana? Eta irakasle eta familien artekoa? Zein paper hartzen du familiak?**

Irakasle eta ikasleen arteko harremana zuzena, gertua eta konfiantzazkoa izaten ahalegintzen gara. Bakarkako tutoretzak erabiltzen ditugu ikasle eta irakasleen harremana sustatzeko.

Familiekin ere harremana izatea ezinbestekoa da ikaslearen prozesuan bideratzeko helburuaz. Familiak eta irakasleak bide berdietik joatea, beraien inplikazioa eta kolaborazioa izatea hartzen diren erabaki guztietan.

**4. Irakasleek formakuntzak jasotzen dituzte aniztasunari erantzuna emateko?**

Bai, ikasturtean zehar Berritzegunetik hainbat formazio eskaintzen zaizkigu.

**5. Zer nolako jarduerak egiten dira inklusioa bultzatzeko? Zer nolako baliabideak erabiltzen dira zentroan? Hezkuntza laguntza zer nolakoa da? (zentroan aurrera eramaten den metodologia...)**

Gure eskola ikas komunitatean sartuta dagoen zentroa da. Filosofia honen barruan talde lanari eta elkarlanari ezinbesteko garrantzia ematen zaio, denok denengatik ikasten dugulako.

Ikasleen aniztasunari erantzun egoki bat emateko, baliabide pertsonal gehiagoren beharra ikusten da, baina hau ez dago eskolaren esku, goitik datorren zerbait baita. Azken urteetan murrizketak direla eta, baliabideak murrizten joan dira.

**6. Taldekatzeak egiteko unean, talde heterogeneoak kontuan hartzen dira?**

Bai, eskolako irizpide moduan horrela planteatzen dira taldekatze desberdinak egiteko: neska/mutil, hizkuntza maila, arlo akademikoa...

**7. Aurretik aipaturiko guzti honek, ikaslearen (X ikaslea) kasuan lagundu du?**

Kasu honetan Adimen Gaitasun Handiak dituen ikaslearen prozesua bideratzeko ez dugu arazorik izan. Eskolako ikas komunitateko metodologiak, bere kideekin elkarlanean aritzeko asko lagundu dio.

## **Koordinazioa eta komunikazioa**

### **1. Nolakoa izan da zuen arteko koordinazioa? (irakasleen artekoa, eskolako aholkulariarekin, Berritzeguneko aholkulariarekin)**

Aipatutako alderdi guztiekin baita eskolako zuzendaritzarekin ere, koordinazioa eta harremana konstantea izan da; horrekin bat, eskola guztia inplikaturik egon da prozesu hau ondo atera dadin.

### **2. Nolakoa izan da familiarekin harremana?**

Familiarekin harremana konstantea izan da; lehen aipatu bezala, familiatik berehala kurtsoz igarotzea nahi zuten, baina gure lehen aldia zenez, astiro joatea erabaki genuen. Gainera, berehala egin izan bagenu, baliteke arazo gehiagorekin topo egitea. Hain zuzen ere, aipaturiko hiru alderdiak (akademikoa, soziala eta emozionala) ez genituzke ezagutuko. Azken hitza guk izan dugu.

## **Prestakuntzak**

### **1. Zeintzuk izan dira zuen eskolako ahulguneak eta indarguneak?**

Ahulgune bezala, promozioa egin dugun lehen aldia izan denez, galduta ibili garela izan da. Horrekin bat, gauzak gaizki egiterako orduan, beldurra nabaritu dugu. Bestetik, ikasle honen promozioa egiten geundela, Berritzegunetik Adimen Gaitasun Handiko ikasleen inguruan formakuntza bat jaso genuen. Gainera, aholkulariak ere beste hainbat prestakuntza jaso ditu gai honen inguruan.

### **2. Zerbait egingo zenukete beste era batera?**

Egoera bakarra izan dela kontuan hartuta, oso pozik gaude egindako lanarekin. Beraz, momentu honetan ez genuke ezer ere ez aldatuko ezta hobetuko ere.

### **3. Zer uste duzue hobetu daitekeela?**

Hobetu daitekeen alderdi bat eta lehen esandakoarekin bat eginez, laguntza edota baliabide gehiago egotea litzateke. Azken finean, prozesuan zehar, ikasleari laguntza eskaintzeko bere ondoan norbait izatea. Hain zuzen ere, hezkuntza premia bereziak dituen ikasle bat ikasgela barruan izan ezker, seguruenik PT edota laguntzailea gela barrura sartu eta ikasle hau lagunduko du. Baina, Adimen Gaitasun Handiko ikasle bat gelan izanda, irakasleak edota tutoreak gainontzeko 20 ikasleekin batera, ikasle horren prozesua kudeatu behar du.

#### **4. Zer izan da gehien lagundu zuena arrakasta bideratzeko?**

Gure ustez, 2.mailan egin genuena oso baliagarria izan zen. Hau da, 2.mailan zegoelarik 3.mailara joatea arrakastatsua izan zen. Gainerako ikasleekin nola konpontzen zen ikusteko aukera paregabea izan genuen; ikasle zaharragoek ere lehen momentutik ondo onartu zuten, inolako oztopo edota zailtasunik jarri gabe. Beraz, esan daiteke hori arrakasta bideratzeko pausoetariko bat izan zela.

#### **5. Irakasle berri bati zer gomendio emango zeniokete?**

Horrelako zerbaiten susmoa badago, egokiena lehendabizi aholkulariarengana joatea litzateke. Horrekin bat, aparteko materiala sortzea, azken finean, ez bakarrik Adimen Gaitasun Handiko ikasleentzat, baizik eta arlo batzuetan gailentzen diren ikasleentzat ere baliagarria izan daiteke material hori. Ikasle guztientzat onuragarria izango litzateke.

#### **Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?**

Aurretik aipatu bezala, garrantzi handikoa da ikaslearen hiru arloak kontuan hartzea: akademikoa, soziala eta emozionala. Hirurak presente eta orekatuak egon behar dira horrelako egokitzapen bat egiterako orduan.

### **3.2. Familia**

#### **Detekzioa**

##### **1. Nola jakin zenuten Adimen Gaitasun Handiak zituela?**

Gure kasuan, hiru seme-alaba ditugu eta betidanik ikusi dugu umeak argiak izan direla; argiak direla bai, baina gehiagorik ez. Jada hasi ginen gehiago pentsatzen, batez ere hirugarren seme-alaba, X kasu honetan, ba eskolan ondo ez zegoela ikusterakoan. Arrazoia bilatzen, nondik etorri ahal zen hori jakiteko... lagun bati komentatu genion umea ondo ez zegoela, irakasleak ez ziola kasurik egiten. Hau da, umea egoera global batean ez zegoen ondo; ez bakarrik eskolan, gero etxera etortzen zen eta kriston kasketak harrapatzen zituen. Bera ez zegoen ondo orokorrean; baina, guk sumatzen genuen eskolatik zetorrela.

Gaitasun Handien kontzeptua zerbait ezagutzen genuen, baina urrunetik; entzunda bai, baina bueno beste gauza asko moduan; ez genuen gertutik ezagutzen. Ta lagun batekin komentatzen “jo, ba hau pasatzen zaigu” eta berak esan zigun: “zuek begiratu duzue benetan gaitasun handien asunto hori?” Ba ez genuen begiratu, baina beti pentsatu izan dugu X oso argia dela. X pixka bat estabilizatzeko edozer egiteko prest geundenez, ba hortik hasi ginen. Psikologo batengana eraman genuen, test bat egin zioten eta berak esan

zigun X gaitasun handikoa zela; txosten bat eman ziguten, mundu horretan sartzen hasi ginen, guretzat guztiz ezezaguna izan zena. Eskolara laguntza bila joan ginen, baina laguntza hori ez genuen bilatu. Orduan, gu hasi ginen beharrian hori asetzeko aukerak bilatzen.

Horrela hasi ginen mundu honetan sartzen eta egia esan, denak trabak izan ziren. Hasieran ni “shock” egoera baten sartu nintzen kontsultan eta psikologoak esan zidan, “ikusten zaitut shock egoeran”. Noski guretzat ezezaguna zen, zer zetorkigun ez genuen ezagutzen.

## **2. Noiz ohartu zineten?**

Horren aurretik, gero gu apur bat errebobinatzen, 5 urteko gelan, test masibo bat egin zutela gogoratzen dut eta 5 urtetako irakasleak esan zigun X-ren baloreak oso altuak zirela; baina inolako informazioa eman ezin zuenez, hor gelditu ginen, ezjakintasunaren aurrean. Baina horretaz gero konturatu ginen. X-ren detekzioa horrela izan zen.

X bideratu eta estabilizatu zenean eta ondo zegoela ikusi genuenean, neba-arrebak ere gaitasun handikoak direla pentsatzen hasi ginen. Azken finean, etxean ere gaia gero eta gehiago irtetzen zen, informatzen hasi ginen, beraiekin informazioa partekatzen. Guk beraien kasua ere argi ikusten genuen, baina haiek ondo zeuden, inolako arazo barik... X-ek oreka falta handia zeukan, eta besteek ba hori ez zuten izaten. Guk eskolan, irakasleei neba-arreben inguruan galdetu genien, ea gaitasun handikoak ziren edo ez. Eskolan ezetz esan ziguten. Neba-arrebak ere jakin nahi zuten (lasaitasun hori izateko) eta proba egin zitzairen. Gaitasun Handikoak zirela irten zen eta irakasleengana joan ginen. Hor gabezia bat sumatu genuen; guk galdetu egiten genuen baina ezetz esaten ziguten. Orduan detekzioa horrela izan zen.

## **3. Nola hartu zenuten egoera hori? Momenturen batean beldurra izan zenuten?**

Psikologora joan ginenean eta konfirmatu zigunean Gaitasun Handiak zituela, momentu horretan bai, momentu horretan beldurra izan genuen. Gainera, momentu horretan umea ez zegoen ondo, gu arrazoi hori bilatzen egon ginen; eta hori zela esan zigutenean, niri inpaktu handia egin zidan.

Nik oroitzapena daukat informazioa eman zigutenean, ezjakintasunaren aurrean egon ginela. Ez genekien zer egin behar genuen, nora jo behar genuen, zer komeni zen egitea... galduta egon ginen. Eskolan komentatu behar dugu eta ea zer egiten dugun? Edo zer? Bai, orientazio falta hori sumatu genuen, ea egoera berri hori nondik bideratu genezakeen. Eta gero, eskolan informazioa partekatu genuenean, eskolatik ere esperientzia falta handia zegoela ikusi genuen. Ez genuen sentitzen inolako laguntasunik. Guk pentsatzen genuen,

gaixotasun bat badaukazu, medikuarenera zoaz eta honek zer egin behar duzun esango dizu; baina kasu honetan, Gaitasun Handiko ume bat badaukazu, logikak esaten dizuna da, eskolara joateko eta bertatik esango dizutela zer egin. Baina hau ez zen gure kasua izan. Bestetik, lagundu nahi izan zuten profesionalek, ez zeukaten inolako esperientziarik. Batzuek lagundu nahi ez; eta besteek formakuntza jaso gabe. Gu bezain galduta zeuden. Eskolatik horrelako kasuak beti egon zirela esan ziguten; beti egon da, baina ez dakit eskolan zenbatgarren identifikaturiko kasua izan den. Oso gutxi, esperientziarik ez zegoela nabaritu genuen. Jarrera ezberdinekin egin genuen topo: batzuk egoerari garrantzia kentzen zioten, eta beste batzuk, nahiz eta laguntzeko prest egon, ez zekiten nondik hasi.

Formakuntza falta bat bai badago; irakasle batzuk zerbait badakite, beraien kabuz informatu direlako. Beste batzuk, beti existitu direla pentsatzen dute; baina benetan ez dago plan bat behetik hasi eta gorarte joaten dena eta ume horren beharrianak asetzen dituen. Beti gu ibili gara atzetik; laguntza eskatu dugunean, jarrera ona izan da eta azkenean, gauzak egiten joan gara baina guk bultza egin dugulako. Iniziatiba ez da zentrotik etorri, guk proposatu ditugu gauzak; baina azken finean, ondo egin dugu lan beraiekin eta jarrera ona izan dute; hori zelan bideratu izan da zailagoa. Guk pentsatzen genuen eta jarraitzen dugu pentsatzen, eskolatik etorri behar dela inizatiba hori. Gu ez gara adituak gai honetan; gu guraso gara, ez gara irakasle, baina beti gauza berriak inplementatzen saiatu gara.

## **Ikaskuntza prozesua**

### **1. Nolako izan da bere ikaskuntza prozesua Lehen Hezkuntzan zehar?**

Kronologia egiten badugu, etapa desberdinak egon dira: ondo ez zegoenean, behaketa bat egiten hasi ginen (ikastetxetik kanpora). Lehenengo mailan, gure behaketa pribatura eramanez genuen, eta bigarren mailan, Berritzegunetik behaketa egin zioten. Lehenengo mailan bere klasearekin jarraitu zuen. Bigarren mailan detekzioa izan zen, horrekin batera, gelatik ateratzen zuten. Azelerazioa proposatu genuen, guk proposatu genuen, aurrera joatea nahi genuelako. Bigarren maila eta hirugarren maila batera egin zituen. Hau da, ikasgai batzuetan, hirugarren mailara igotzen zen eta hauek burutzen zutena egiten zuen. Astiro-astiro integratzen joan zen hurrengo urtekoekin, baina bere adinekoekin harremana mantentzen zuen. Hurrengo kurtsuan jada, laugarren mailara igaro zen.

Kurtsoen barrena, aberaste curricularra egin zioten, baina guk ez dugu sekula ikusi horrek balio zuenik. Irakaslearen arabera gertatzen zen, batzuk kontuan hartzen zuten, beste batzuk ordea ez. Adibidez, ariketak amaitu ondoren, irakurri egiten zuen, hau da, betikoa. Ezjakintasuna eta formazio falta sumatu dugu askotan, gainera, denbora falta ere. Irakasleek ikasle asko dituzte eta ikasle bakoitzari erantzun egoki bat emateko denbora ez die ematen. Gainera, argi dagoena da, irakasleak laguntza arinago eskainiko diola txarto doanari, ondo doanari baino.

## **2. Momentu honetan zer nolako hezkuntza jasotzen du?**

Momentu honetan ez du inolako plan berezik. Bera baino urte bat gehiagokoekin dago, baina ez du inolako aberasterik ez ezer. Onuragarria izan da igaro diren bi urte hauentzat; motibazioak urte hauek iraun ditu. Orain zer gertatzen da? Berriro ere arazo berdinekin gaudela, azkar bukatzen ditu jarduerak askotan. Egia da, aurten duen irakaslea ezagutzen dugula eta behar duen guztietan X-ri gehiago eskatzen dio; beraz, ez dago plangintza bat baino irakaslearen partetik lana badago.

## **3. Zein elementu izan dira gakoak zure seme/alabaren eskolaratze prozesuan? (irakaslea, elkarteren baten laguntza...)**

Hainbat gauza egon dira. Niri etorri zaidan lehen gauza, Aupatuz-ekin harremanetan jarri ginela da. Egia esan, jende onarekin topatu gara, beste batzuen esperientziak asko lagundu izan digu; ideiak, erabakiak, etab. hartzeko. Kasu antzerakoan bizi izandako jendea. Beti dago, gu baino lehen, egoera antzekotik igaro den jendea. Eskolatik beti saiatu gara kontaktuan egoten, aholkulariarekin eta irakasleekin ere harremanetan egon gara. Guk proposatu ditugun gauzak, ez guk nahi izan dugun abiaduran, baina egin dira.

### **Eskola testuingurua**

#### **1. Eskolatik zer izan da gehien lagundu duena?**

Jarrera zabala izan dute beti; zabalik egon dira. Nik uste positiboa hori izan dela. Inoiz ez dugu oztoporik aurkitu. Azkenean lortu dugu gauzak aurrera egitea, eskolarekin batera. Guk bakarrik ezin izango genuen ezer lortu. Egia da prozesua oso astiro joan dela.

#### **2. Eskolako testuinguruak/metodologiak zertan lagundu du?**

Metodologiak ez du lagundu; denbora guztian oso itxia izan da. Adibidez, ikusten genuen, Amaraberri sistema askoz ere zabalagoa dela, ikasle hauentzat baliagarriagoa izan daiteke; nagusiagoekin lan egiteko aukera dutelako. Baina eskola honetako metodologia oso itxia da.

## **Koordinazioa eta komunikazioa**

### **1. Hezkuntza-sistematik zailtasunak izan dituzue? Oztupoak jarri dizkizute?**

Ez, oztoporik ez, baina erraztu ere ez. Egia da, kasu batzuk ezagutu ditugula, oztopoak izan dituztenak; gure kasuan, ez da oztoporik egon, baina erraztasunik ere ez. Guk ez bagenu bultza egin, seguruenik ez zen ezer egingo.

### **2. Hezkuntza-sistemak nolako erantzuna eskaini zion?**

Eskaini, ez zuten ezer eskaini. Guk eskatu genuenean, orduan bai. X-ren behaketa pribatua Gabonetarako eginda egon zen, baina berez Berritzeguneko behaketa, hurrengo urteraino ez zen egin. Plazak oso astiro joan dira, baina aurrerapausoak egon dira. Beste kasu batzuk ezagutzen ditugu, aurrerapausorik ez dutenak izan.

### **3. Ikasturte bat aurreratzearena nola ikusten zenuten? Ez zenuten beldurra izan, lagun berriak egiterako orduan nola moldatuko zen jakiteko?**

Zalantzak izan genituen, baina argi izan genuen zerbait egin behar genuela. Umea ondo ez zegoela sumatzen genuen, beraz zerbait egin behar zen hori aldatzeko. Umearentzat aldaketa handia da; gauza batzuk daude onak izango direnak eta beste batzuk gehiago kostatuko direnak. Ezagutzen genituen esperientziak kontuan hartuta, gehienak onak ziren eta X-ek heldutasun maila altua zuela ikusten genuen, beraz hurrengo urteko kideekin ondo moldatuko zela ikusten genuen. Sozialki ere ondo moldatu izan da beti.

Arrisku asko ikusten genion ezer egiten ez bagenu. Hau da, geldi geratu ezker, arazo gehiago ikusten genituen. Beraz, zerbait egin behar genuela argi geneukan. Guzti hori egitea oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun, berak bere burua onartzeko eta bere nortasuna garatzen joateko. Horrek ere erabakia hartzeko orduan asko lagundu zigun. Zalantzekin baina argi izan genuen zerbait egin behar zela.

X-ek denbora bat behar izan zuen; baina behin denbora hori igarota, bere burua ondo ikusten zuen. Irakasleekin komentatzen genuen, eta esperientzia eza zeukatenez, inork ez zuen aurrerapauso hori proposatzen. Erabakia gurea izan zen.

## **Antzeko egoerarik**

### **1. Familiako beste kideren bat egoera berdinean dago? Hau da, Adimen Gaitasun Handiak ditu?**

Bai, neba-arrebek.



## **2. Nolakoa izan da beraien kasua?**

Desberdina izan da, beraien izateko era ere desberdina izan delako. Gorabeherak izan dituzte, baina ondo egon dira. Guk pentsatzen genuen biak izan ahal zirela gaitasun handikoak, baina orden bat jarraitu behar zen. Lehenengoari, behaketa 6.mailan hasi zitzaion; Covid-19a heldu zen, orduan hurrengo urterako utzi zen. Ondoren, institutuan egin zioten. Bertan ere, jarrera positiboa izan zuten baina berriz ere, ezjakintasunarekin egin genuen topo. Bigarrena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1.mailan egin zen. Guk dena batera egitea nahi genuen, baina Berritzeguneak ez zuen hori onartzen; beraz, banan-banan egin behar izan genituen. Bigarrena pribatutik egitea erabaki genuen. Hor jada bi kasuak konfirmatu ziren; eta gero kasua antzekoa izan da, aberaste curricularra egitea pentsatu genuen. Egiten dituzten gauzak, ekintza puntualak dira, plangintza orokor baten barruan ez daudelarik.

Kasu hauetan, kurtsoz aldatzea hitz egin zen, baina beraiek ez zuten nahi izan eta beraien adinari egokitutako ikasgelan jarraitu zuten. Beste adin bat da eta horrek ere eragin egiten du.

### **Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?**

Guretzat garrantzitsua dena, prozesua normaltzearena izan da. X mailaz aurreratu zutenean, gu oraindik Lehen Hezkuntzako 6.mailan geunden, jendea guregana galdetzen etortzen zen. Gure etxean horrek aldaketa handia ekarri du. Hori normalizatu zenean, etxean ere gai hori normalizatzen hasi ginen. Beraiek ere lan bereziak egin dituzte gainontzeko ikasleen aurrean, eta orain jada gaia gehiago normalizatu dela uste dugu. Lehengo pausoa, azken finean, etxean normalizatzea izan da; seme-alabei azaldu, zer den, zer gertatzen zaien, etab. Zelan landu umeekin, zelan azalduko diozu zer gertatzen zaion, baina beraiek normalizatu behar dute, azken finean, beraiek izango dira, gizarteari aurre egin beharko diotenak. Beti saiatu izan gara, etxetik ere, beraien interesa pizten duten ekintzak egiten; irakurketa gustatu ezker, ba behar diren liburuak erosten edota proiektu ezberdinak egiten. Arlo akademikoaz aparte, arlo soziala eta arlo emozionala nola lantzen den ere garrantzia handia dauka.

### **3.3. Ikaslea**

#### **Detekzioa**

##### **1. Nola jakin zenuen Adimen Gaitasun Handiak zenituela?**

Niri gehien bat gurasoek esan zidaten; konturatu ziren gurasoak.

##### **2. Noiz ohartu zinen?**

Ni ez nintzen konturatu, niri gurasoek esan zidaten. Orduan niri gertatzen zitzaizkidan gauzen inguruan kontzientzia hartu nuen. Niretzat ume guztiak ginen desberdinak, ez nintzela ni bakarrik.

#### **Ikaskuntza prozesua**

##### **1. Nola deskribatuko zenuke egun bat eskolan?**

Klasera joaten nintzen, lehenengo matematika tokatzen zen, zerbait azaltzen zuen, nik lehenengoan ulertzen nuen. Ondoren, beste bi edo hiru aldiz azaltzen zuen gainontzeko ikasleentzat eta klasean azkenean aspertu egiten nintzen. Gero, lanak bidaltzen zituen, hauek egiten nituen, eta gainerakoek jarduerak ez zituztenez bukatzen, nire lekuan pentsatzen egoten nintzen. Horrela, ikasgai ia guztietan. Ikasgelan aspertu egiten nintzen, ondokoak laguntzen nituen batzuetan, beste batzuetan aldiz, molestatu egiten nituen.

##### **2. Zer da gehien kostatzen zaizuna?**

Kostatzen zitzaidan ulertzea gelan erritmo desberdinak daudela; hau da, zer dela eta nik jarduera bat bizkor bukatzen dut eta gainontzeko ikasleek denbora gehiago behar dute. Hortik kanpo, ez dut asko gogoratzen.

##### **3. Zer da zure gustukoena? (ikasgaien inguruan, ikasteko moduak/taldeetan...)**

Proiektuetan lan egitea gustatzen zait; taldeka lan egitea ere asko gustatzen zait, baina lan egiten duen talde batekin, kooperatiboki lan egiten duen talde bat. Ikasgaien artean gehien gustatzen zaidana, ingurune da. Bueno, ingurunen ere, segun zer gai; adibidez, unibertsoaren gaia asko gustatzen zait; orain ematen ari garen eragile geologikoak ere. Mate ere ez dago txarto, baina nahiago dut ingurune. Ta ingelesa... da ingelesa... ez zait asko gustatzen.

##### **4. Zer izan da urte hauetan eskolan ikasteko eta pozik sentitzeko gehien lagundu zaituena? (irakasle batek, klaseko kideak...)**

Neba-arrebak. Lehen egoten zirenean, orain jada ez daude. Zerbait behar nuenean edo zerbait gertatzen zitzaidanean, beraiengana jotzen nuen. Arlo emozionalean azken finean. Beraiek ulertu egiten ninduten, etxean gertatzen zena ezagutzen zuten. Orain jada, nire

eskola berdinean ez daudelarik, normalizatuago dagoela esango nuke; beste urte bat bezala da niretzat.

### **5. Eskolan aspertzen zinen? Irakasleak lan gehiago ematen zizun egiteko? Orain aspertzen zara?**

Orain ez naiz aspertzen. Lehen, lehenengo mailan apur bat aspertzen nintzen; irakasle horrek fitxak zituen niretzako. Aspertu egiten nintzen, baina laguntza edo entretenimendu hori izaten nuen. Gero, bigarren mailan, bigarren eta hirugarren maila batera egin nituen. Hirugarren mailan, matematika, gazte, ingelesa eta euskara egiten nituen; besteak nire adineko ikasleekin egiten nituen. Hor adibidez, matematiketan, bidaltzen zituen lanak egiten nituen. Bestetik, askotan zalantzaren bat izatekotan, lehenengo irakasleak besteak laguntzen zituen; ondoren, nigana etortzen zen.

### **6. Irakasleen partetik laguntza berezia jaso duzu?**

Ez, beraiek normalizatu egin dute. Orduan, ez dut laguntza behar izan. Egoera normalizatzea niretzat laguntza bat izan da; ez egoera arraro moduan hartzea.

## **Arlo soziala**

### **1. Zer nolako harremanak dituzu ikaskideekin? Gustura zaude zure eskolan? Zer hobetuko zenuke? Zer edo nor izan zen gehien lagundu zizuna?**

Harreman onak ditut, lagun onak ditut; ondo jausten ez zaidan jendea ere badaukat. Kurtsoz aurreratuko zidatela esan zidatenean, ni harreman horiek izaten saiatzen hasi nintzen; ikasgela berri horretan lekutxo bat bilatzen hasi nintzen. Astiro-astiro preparatzen joan nintzen eta lagunak aurkitu nituen, astiro-astiro gehitzen joan gara.

Oso gustura nago eskolan. Agian lan egiteko era hobetuko nuke; dena da oso basikoa bezala; ez dugu ezer espeziala egiten, era tradizionalen egiten dugu dena. Lehen esan bezala, neba-arrebak izan ziren gehien lagundu nindutenak. Eta zer? Ez dakit, familiak. Adibidez, bigarren eta hirugarren maila batera egitearenak lagundu didala uste dut; horrela, hirugarren mailako kideak ezagutzeko aukera izan baitut. Ni hasi nintzenean, hasieran denek arraro bezala begiratzen zidaten; gero, ohitu ziren eta hurrengo urtean jada beraien gelara joan nintzenean ez ziren harritu. Azken finean, espero zuten. Kolpean egin ezkerro, niretzat arraroa izango zen. Askotan, patio orduetan jende asko nigana etortzen zen eta mailaz zer dela eta aurreratu zidaten galdetzen hasten ziren. Ni momentu horretan, presionatuta sentitzen nintzen.

**2. Erraza egin zaizu lagun berriak egitea? Laguntza jaso duzu?**

Ez eta bai. Jendea nigana hurbiltzen zen, batzuk gustura egoten ziren, beste batzuk ez; orduan ba, batzuk joaten ziren eta beste batzuk gelditzen ziren. Gelditzen ziren pertsonekin, ba denak etortzen ziren begiratzera moduan. Batzuei ez zitzaien arraroa egiten, orduan egunak pasa ahala elkarrekin geratzen ginen, lagunak bihurtu arte.

Adibidez, saskibaloitari esker, nire adineko haurrekin harremana izaten jarraitzen dut. Ta bestetik, asteburuetan herriko lagunekin gelditzen naiz; nire adinekoekin, txikiagoekin, handiagoekin. Herri txikia izateak hori dakar.

Covid-19 dela eta, patio orduetan nire adineko kideekin ezin nintzen egon eta bastante txarto pasatu nuen. 4.mailako lehen urtea zen eta nire adineko pertsonekin ezin nintzen egon; patioetan ez nuen ondo pasatzen: gustura nengoen egoten nintzen pertsonekin, baina ez nengoen gustura beste pertsonekin ezin nintzelako egon. Nik ditudan lagunak saiatzen ziren ni animatzen; irakasleak patioetan ez ziren egoten, beraz, beraien partetik ez dut laguntza askorik jaso.

Nik bi aldeak mantentzea nahi nituen; horregatik saskibaloira apuntatu nintzen. Horrela, saskibaloian nire adineko lagunekin egoten naiz; eta eskolan, nire mailakoekin.

**Beste zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Anekdotak bat dut, ez dudala inoiz ahaztuko. Nire 4.mailako lehenengo egunean, joan behar nintzen amatxogaz eta amatxori kotxea hondatu egin zitzaion; orduan, osabarekin joan ginen. Ilaran jarri behar ginen eta ni beste ilara joan nintzen; klaseko bat etorri zitzaidan eta ilara horretan ez nintzela esan zidan. Orduan, ilararen atzealdean jarri nintzen; justu nire atzean ezagun bat zegoen. Klasera gindoazela, nire aurreko urteko kide batek ilara horretan ez nintzela esan zidan; baina nire ezagunak ni ilara zuzenean nengoen esan zion, hain zuzen ere, mailaz igo zidaten eta. Ni momentu horretan hitzik gabe gelditu nintzen, eta nire ezagunari berak nire ordean erantzun izana asko eskertu nion.